

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOAK

Proposamena	Kirol instalazioak handiagotu Zumaia bezalako herri bati dagokion bezala.
--------------------	--

Proposamenaren arrazoia/ beharra:	Zahar eta gazte guztiei.
--	--------------------------

Balorazio teknikoaren arrazoia (deskribapena):

Kiroldegia handitzeko aurreproiektua eginda dago.
Zumaia HAPOaren aurrerakinean aukera hau ere azaldu da eta bertan Aita-Mari futbol zelaia Puntanuetara eramatea aurreikusi da. Modu honetan Aita-Mari kalea luzatu eta GKN inguruarekin konexioa lortuz.
Beraz, kontuan izanda aurrekontua oso handia dela, eta ez duela ematen prozesu honetan aurreikusi denarekin kanpoan utzi beharko da (125.000 eurotik goragokoa delako).

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):

TINKOren proiektutik gauzatze materiala kalkulatzeko **5.193.886,06 € 1/19tik**

Obra guztiaren kostua 4.364.610 €.(PEM)45 €

Obraren azalera = 3.796,66 m2 (handitzea)

Arkitektoaren ordainsariak

H= PEM*k

K azalera 2.000m2 eta 5.000m2 artean denean 8%

H= 349.168,8 €

H= ordainsari osoa

H= honorarios arkitektoaren ordainsari osoa da

10% aurre-azterketak

25% aurreproiektua

50% Oinarrizko proiektua

75% Gauzatze proiektua

100% Obra zuzendaritza

110% Obra amaierako dokumentazioa.

Suposatzen da Tinko oinarrizko proiektua eginda dagoela. Beraz

H/2= 174.584,4 € Gauzatze proiektua eta Obra Zuzendaritza.

Gauzatze proiektua idaztea= 87.291,2 € izango litzateke.

Hausnarketa. Tinkoren proiektua aztertuta, nire ustetan oinarrizko proiektua baino gehiago aurreproiektu bat da, gainera dakidanez moldatu beharra dago, beraz

H= 174,584 € izango lirateke.

Inbertsioa

Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):

Gauzatze proiektua landu daiteke.

Obra lanen estimazioa **6.284.602,13 €**



Proposamena garatzeko behar den epea:

--

Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:

Kirol Patronatua eta Hirigintza Saila.

Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):

Prozesutik kanpo.

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOAK

Proposamena	Parke berri bat egitea , ez izatea umeena bakarrik. (6+) tobogan handiekin.
--------------------	--

Proposamenaren arrazoa/ beharra:	
---	--

Balorazio teknikoaren arrazoa (deskribapena):

Egun Mari-Anton parkean parke bat egiteko proiektua esleitu da kontratu txikiz.

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):

Inbertsioa

Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):

PROIEKTUA: Marianton parkeko proiektua esleituta dago jada

OBRA EXEKUZIOA:

- 300m²-ko egurrezko egituradun estalpearekin (Aita Mari eskola) eta 5000m²-ko parkea eginda: 1.625.000€

- 300m²-ko estalpea egitura metalikoarekin eta 5000m²-ko parkea eginda: 1.500.000€

OBRA ZUZENDARITZA ETA OSASUN ETA SEGURITATE KOORDINAZIOA: 245.000€

Beraz, aurrekontuetarako jarri dugun mugatik pasako lirateke, eta kanpoan utzi behar da.

Proposamena garatzeko behar den epea:

Bi urte inguru.

Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:

Hirigintza, hezkuntza (haurren kontseilua) eta parte hartzea badin badagokio.

Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):

Prozesutik kanpo

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOA

Proposamena Lokal edo pabelloi bat prestatu boulder eta **eskalada** egiteko.

Proposamenaren arrazoia/beharra: Gaur egun Juan-Belmonte kalean dagoen boulder lokala txiki gelditu da. Haurrak, gazte eta helduak apuntatzen joan direlako. Kirola sustatzea. Futbola eta eskubaloia ez diren beste kirol batzuk sustatzea.

Balorazio teknikoaren arrazoia (deskribapena):

Akaso obra eta zerbitzuetarako pabiloi berria eraikiko balitz, gaur egungo brigadaren pabiloia egokia litzateke rokodromo batentzako. Bestela, udalak ez du lokalik boulder erako rokodromoa eraikitzeke, erosi egin beharko luke. Kiroldegian badago rokodromo bat baina ez da egokia jarduera hau sustatzeko. Juan Belmonten dagoen lokala egitasmo pribatukoa da. Kiroldegiaren berritze edo handiagotze proiektuan aztertu beharko litzateke. Momentuz, Udalak ez dauka lokal aproposa behar den bezalako boulderra egiteko. Epe luzera begira, hasieran aipatutako Udalak duen pabiloian egin ahalko da, baina urte batzuk beharko dira hori bideragarria izateko.

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):

Inbertsioa

Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):

Proposamena garatzeko behar den epea:

Brigadako pabiloian bada 5 - 10 urte itxaron beharko da.
Lokala erosi, proiektua idatzi eta gauzatzeak 2 urteko epea luke.
Egokiena kiroldegiaren erreforma proiektuan aurreikustea da

Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:

Hirigintza eta kirolak

Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):

Prozesutik kanpo

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOA

Proposamena **Kotxe eta bizikleta elektrikoak** kargatzeko tokiak (ordainduta noski).

**Proposamenaren
arrazoia/beharra:**

Balorazio teknikoaren arrazoia (deskribapena):

Jasangarritasun legeak eraikin publikoetan karga puntuen beharra ezartzen du. Era berean, bide publikoetan dauden parkinetan 40 aparkalekuko karga puntu bat ezarri behar da. Herriko beste aparkalekuetan zenbat karga puntu jarri behar diren mugikortasun planak zehaztu behar du. Udala Aldundiaren kontratazio zentralak egindako deialdira atxikitu da eta hurrengo bi urtetan ibilgailuentzako 4 puntu jartzeko aurreikuspena egin du. Beraz, proposamen hau egingo da, beste bide batetik.

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):

Inbertsioa.

Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):

Aurreikusita badago, aurretik.

Proposamena garatzeko behar den epea:

Diputazioko kontratazioak ezartzen dituen epeak bete beharko dira.

Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:

Hirigintza eta udaltzaingoa.

Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):

Prozesutik kanpo, berez, aurreikusita badagoelako aurretik.

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOA

Proposamena	Euskara sustatu. Ikasteko eskaintza handitu ikasture osoa aldeztu aurretik ordaintzea eskatzen ez duten ezta langabetuek ordaintzea ere eskatzen duten zentroekin.
--------------------	---

Proposamenaren arrazoia/beharra:	Euskaltegia topera dago baina ez du ostegunetik igandera irekitzen, ezta oporretan ere. Ikasi nahi duenari ikasteko aukera eman, nahiz eta asteburua besterik ez izan ikasi ahal izateko.
---	---

Balorazio teknikoaren arrazoia (deskribapena):

Euskaltegiari dagokion egutegi eta ordutegian ez du eskumenik Udalak. Edozein kasutan zaila ikusten da aipatutako egun eta data horietan Zumaia moduko herri batean taldeak sortzea. Diru laguntzak aurreratzea, ordea, egin litekeen zerbait da. Beste udal batzuetan egiten da: Orion, Zestoan...

Kontua da diru laguntzak ez direla prozesu honetan sartzen. Horregatik kanpoan utziko da proposamen hau. Hala ere horrek ez du esan nahi Udalak hurrengo aurrekontuetarako aintzat ez hartzea.

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):

Diru laguntzak.

Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):

15.000 euro gutxi gorabehera.

Proposamena garatzeko behar den epea:

Udazkenean aurrekontuetan sartu, eta hurrengo ikasturtearen hasieran 2023 irailean dirua aurreratu.

Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:

Euskara Saila.

Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):

Prozesutik kanpo dirulaguntzetan sartuko litzatekeelako.

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOA

Proposamena Jende nagusiarentzat eta bakarrik bizi direnentzat zein zaugarritasun egoeran daudenentzat **egunean jatordu bat prest izatea**.

Proposamenaren arrazoa/ beharra:

Balorazio teknikoaren arrazoa (deskribapena):

Gizarte Zerbitzuetako zereginetako bat da, herritarrei informazioa ematea eta euren egoeraren balorazioa egitea.

Honen aurrean eta herritar bat detektatzen bada zailtasunak dituela jatordu bat izateko edo prestatzeko aukera desberdinak lantzen dira herritarrekin.

Hau da, diru sarrerak txikiak baldin baditu bere ohiko jatorduei aurre egiteko, dauden prestazio ekonomikoen berri ematen da, eta baloratzen da ea zerbait dagokion. Hala bada tramitazioa egiten da.

Hilean behin janari bankuko zerrenda ere Gizarte Zerbitzuetatik kudeatzen da eta egoera hala baloratzen bada bideratzen da.

Bestetik, herritarrak zailtasunak baditu jatorduak prestatzeko, gaur egun etxez etxeko laguntza zerbitzuaren bitartez ere eskaintzen da.

Bestetik, herritarrei ere informazioa helarazten diogu Sutondo berri emanez. Gureak taldeak eskaintzen duen zerbitzu bat da. Astean behin janari prestatutako janaria gerturatzen dute etxeetara norberak berotzeko, adineko edota desgaitasuna duten herritarrei.

Hau proposatu duen herritarrak egoera zehatz batzuk ezagutzen baditu, Gizarte Zerbitzuetan eman beharko luke honen berri herritar horien balorazioa egiteko.

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):

Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):

Proposamena garatzeko behar den epea:

Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:

Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):

Prozesutik kanpo.

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOAK

Proposamena	Oikiako eskolako aterpea zertxobait luzatzea , euria egiten duenean leku urria geratzen da eta.
--------------------	--

Proposamenaren arrazoia/beharra:	
---	--

Balorazio teknikoaren arrazoia (deskribapena):

Eskola eta ondoko jolasgunea egin berri dira eta aterpeak Estatuko eta Erkidegoko araudiak estalkien inguruan ezartzen dituen azalerak betetzen ditu. Beraz, ez da teknikoki egoki ikusten. Araudiaren arabera, ezin da handitu estalpea. Beraz, ezin da bideratu proposamena.

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):**Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):****Proposamena garatzeko behar den epea:****Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:****Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):**

Prozesutik kanpo.

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOA

Proposamena	Oikiako eskola zaharrari bizia ematea. Adibidez: sofa bat jarri, jolasentzat gune bat... Horretarako eskola zaharreko giltza auzokide batek edukitzea behar dugunerako.
--------------------	--

Proposamenaren arrazoia/beharra:	
---	--

Balorazio teknikoaren arrazoia (deskribapena):

Eskola zaharreko eraikinak ez zituen gutxieneko baldintzak betetzen, instalazioen egoera txarra da eta ez da irisgarria. HAPOn eraistea aurreikusten da, beraz ez da egokia bertan inbertsio handirik egitea (irisgarri egiteko inbertsio handia egin beharko litzateke).

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):**Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):****Proposamena garatzeko behar den epea:****Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:****Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):**

Prozesutik kanpo.

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOA

Proposamena	Zumaiena kirol pista estaltzea.
--------------------	--

Proposamenaren arrazoia/beharra:	Zumaiena Guraso Elkartearen proposamena. Kirol azpiegitura aldetik dagoen gabezia ulerturik, hobekuntza bat ezartzea litzateke. Herriko kirol eragileentzat hobekuntza handia izango litzateke. Zumaietan eskubaloi talde asko daude eta ez daude kantxa estaliak. Jakin badakigu, Eusko Jaurlaritzak Sagarbideko pistak estaliko dituela baina horrekin ere gabeziak jarraituko duela ulertzen dugu. Beste kirol ugari daude gainera. Zumaienako kanpo azpiegiturak urteko egun guztietan daude irekita eta herritarrentzako ekarpen handia izan daitekeela ulertzen dugu.
---	--

Balorazio teknikoaren arrazoia (deskribapena):

Diru publikoa inbertitzeko garaian, eremu publikoak lehenesten dira. Beraz, ez dagokio Udalari ekintza hau egitea.
--

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):

Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):

Proposamena garatzeko behar den epea:
--

Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:
--

Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):
--

Prozesutik kanpo.

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOA

Proposamena	0-6 urteko ume/familiarentzako gunea. Arrangoletako gunean.
--------------------	---

Proposamenaren arrazoia/beharra:	
---	--

Balorazio teknikoaren arrazoia (deskribapena):

Arrangoletako gunean eraikin zen haur eskola behin-behineko izaerarekin egin zen plaza edo espazio publiko baten gainean.

HAPOaren aurrerakina aurkeztu ondoren HAPOa lantzeko irizpide eta helburuak onartu ditu Udalak eta bertan espazio publiko honen berreskuratzea aurreikusten da. HAPOan plaza moduan aurreikusita dago (behin-behineko eraikin horiek kenduta).

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):**Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):****Proposamena garatzeko behar den epea:****Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:****Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):**

Prozesutik kanpo.

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOAK

Proposamena

Parking publiko estalia egin. Gernika paseoan, Guaskor fabrika zaharrear edo egungo futbol zelaian izan daiteke. batez ere astebukaera eta tenporada altu garaian herrikoak erabiltzeko (Aste Santua, uda, gabonak, etab.)

Proposamenaren arrazoia/beharra:

Aparkaleku beharra (arazo larria!)

Balorazio teknikoaren arrazoia (deskribapena):

Gai hau HAPOan aztertzen den gaia da.

Bertan Gernika parkeko aukera planteatu zen baina ez du aurrera jo (Portu Saileko eremuaren barne dago), Egungo futbol zelaiaren azpian eta Guaskor eremuan ere aurreikusi du HAPOak.

Torreaga eremuan beste aparkaleku bat ezartzeko ere lanketa egiten ari gara.

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):

Inbertsioa

Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):

Handia. Aurrekontu parte hartzailetik haratago doa kostua.

Proposamena garatzeko behar den epea:

10 urte.

Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:

Hirigintza.

Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):

Prozesutik kanpo.

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOAK

Proposamena	Argiteria: Juan Belmonte kalean argiteria hobetu, kiroldegitik futbol zelairako bideak argia jarri. Bestetik, argi gutxiko guneak argitu: Aita Mari auzuneko portxeak, San Telmo kalearen bukaera (ermita arteko ingurua) eta Alde Zaharra. Azkenik, Oikian argi gehiago jarri Oikirako igoeran eta Oikian eta, oro har, herrian dauden farolak aldatu edo argitasuna handitu.
--------------------	---

Proposamenaren arrazoia/beharra:	Mugikortasuna eta ikusmena. Puntu beltzak kendu.
---	--

Balorazio teknikoaren arrazoia (deskribapena):
Argiteri publiko guztia, diru-laguntza bat medio (IDAE) berritzera goaz, instalazio berriak indarrean dagoen arautegia bete beharko du. Bertan argitasun maila ere definitzen da.

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):
Inbertsioa.

Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):
Proiektuaren aurrekontua 1.176.000€koa da.

Proposamena garatzeko behar den epea:
10 hilabete

Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:
Hirigintza

Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):
Prozesutik kanpo.

PROPOSAMENEN BALORAZIO TEKNIKOAK

Proposamena

Herri guztian begiratu beharko litzateke **oztopo arkitektonikoak kentzeko**: espaloietako koskak kendu, kaleak eta espaloiak egokitu, adokinak eta lurreko zuloak konpondu, behar den lekuetan aldapatxoak jartzea, kosketan txapak jarri. Zehazki Aita Marin etxe azpietatik jaisteko koska asko daude eta gurpildun aulkietan dabilzanentzat oztopo handia dira. Era berean, Erribera kaletik Mari kalera doan igogailua ez da egokia. Estazioa-poligonoa gunean, Kotxerasetik behera espaloia jarri eta Portuko eta Erriberako zein alde zaharreko adokinak berdindu.

Proposamenaren arrazoia/beharra:**Balorazio teknikoaren arrazoia (deskribapena):**

Estaziotik irteera Marianton parkerako konexioa hobetzeko berrurbanizazio proiektua du eta exekutatzea aurreikusten da.

Udalak espazio adokinuak egokitzeko lanak bideratzen ditu udal brigadarekin baina zoladura mota honek koskatxoak ditu eta ez bada aldatzen. hau ezin da ekin.

Aita Mari kaleak berrurbanizazio proiektu bat behar du.

Aurrekontuaren zein atali dagokio (Inbertsioak, gastu arrunta, diru-laguntzak...):

Inbertsioa.

Aurreikuspen ekonomikoa (aukera bat baino gehiago badaude, hala adierazi):

Estazioko berrurbanizazioa: 204.464,40€

Proposamena garatzeko behar den epea:

Urte bat.

Proposamena garatzeko koordinatu beharreko arloak/sailak:

Hirigintza.

Proposamenaren balorazio teknikoa (prozesuan aurrera / prozesutik kanpo):

Prozesutik kanpo